

PROIEKTUAREN DESKRIBAPENA

Guk aurkezten dugun proiektua adin guztietako jendeari dago zuzenduta, Donostiako Ulia mendian abentura parke bat jartzean datza. Parke interaktibo mota hau oso zabaldua dago batez ere Europan zehar baina Gipuzkoa mailan Txindokiko Itzala parkea besterik ez da. Horregatik guk hainbat jarduera eskaintzen ditugu Donostian bertan.

Gure parkean bi jarduera ezberdin egin daitezke nagusiki, batetik, oztopo lasterketetarako entrenamendua, hemen espero dugun jendea lehiatzeko asmoa duen jendea da eta ondorioz, oso maiz entrenatzera eta lasterketak prestatzera etorriko den jendea. Eta bestetik, zuhaitz artean altueran egiten den zirkuitua. Bigarren hau egun ezberdinetan eta inongo konpromisorik gabe ondo pasatzeko bakarrik dago pentsatua, lagunekin familiarekin edota bakarrik baina betiere dibertitzeko asmoz.